

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

353/2019 prozedura arruntean interesa izan dezaketenak epatzea

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 49.1. eta 49.4. artikuluetan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da errekurtsua jarri dela eta 353/2019 prozedura arruntari buruzko administrazio espedientearen EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara bidali dela. Prozedura hori Alfredo Fernandez de Palomares Ibañez jaunak eta Juan Francisco Fernandez de Palomares Ortiz jaunak eskatuta bideratu da martxoaren 5eko 94/2019 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez partzialki baietsi baitzen Gaubea aldeko lurzatiak biltzeko erabakia (2. fasea —Araba—, 2. sektorea) onesten duen Nekazaritza zuzendariaren otsailaren 23ko 407/2018 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua.

Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzearen bidez epatzen dira prozeduran interesa izan dezaketenak, eskubidez komeni bazaie, agertu eta pertsonatu daitezkeen EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan izapidetutako autoetan, eta bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a

Arabako Foru Aldundiko Lege Aholkularitza Zerbitzuko legelaria

M. J. OGUETA LANA